

# IRRIA HARRO!

*Erreteria-Oreretako haurren jai batzordean elkartutako haurrek Madalenetako txupinazo txikirako eta orokorrean herriko jaietarako kantu berri baten sorkuntza proposatu zuten. Letra eta musika herriko haur eta gurasoek sortua da elkarlanean. Orri honetan Irria harro! kantaren letra daukazu.*

*Erreteria-Orereta, 2018  
Oarsolrriko familiak*

Herria altxa! Jaia hasi da!  
Gure herrian irria harro!  
(2 aldiz)

A ze alaitasuna!  
A ze kolorea!  
Zabaldu behar dugu  
denon umorea!  
Plaza beterik dago,  
festa dator antza...  
Musikari jarraituz  
gogoz egin dantza!

Herria altxa! Jaia hasi da!  
Gure herrian irria harro!  
(2 aldiz)

Urezko eta suzko  
zezenen bidaiak,  
koadrilen koloreak...  
hasi dira jaiak!  
Buruhandietatik  
ihesi ahal bada...  
baina harrapatzean  
sortzen den algara!

Herria altxa! Jaia hasi da!  
Gure herrian irria harro!  
(2 aldiz)

Txunpa txunpa txispun  
tata eta tete,  
txikienok herria  
nahi genuke bete!  
Eskuak zein bihotzak  
elkarri atxiki  
badator eta... gure  
Txupinazo-Txiki!

Herria altxa! Jaia hasi da!  
Gure herrian irria harro!  
Badator eta Txupinazo-Txiki!  
Gure herrian irria harro!  
(4 aldiz)

